


## GEBren dokumentazio zentroko 2023ko iraileko artikulu nabarmenak



**CIMENO MONTERDE, C., LIMA CARDOSO, D.T. de, JIMÉNEZ ADAME, B. y MELERO LAVIÑA, E., 2023. [Guía para profesionales que intervienen con niños, niñas y adolescentes que migran solos.](#)** Zaragoza, Instituto Aragonés de Servicios Sociales (IASS). ISBN 978-84-09-48874-2

Dokumentu hau Aragoiko Gizarte Zerbitzuen Institutuak eta Zaragozako Unibertsitateak elkarlanean egindako gida da. Bakarrik migratzen duten haur eta nerabeekin esku hartzen duten profesionaleri zuzenduta dago. Bi ataletan banatuta dago. Batetik, oinarriko kontzeptu batzuk, haien ibilbideak, kalteberatasun-egoerak, nazioarteko eskubideak eta abar ulertzeko, eta, bestetik, harrera instituzionaleko ibilbideak, Europako testuinguruan izandako esperientziekin eta ikerketekin. Halaber, eguneroko esku-hartzerako jardunbide egokiak, aholkuak, prestakuntza eta gaitasun profesionalak eskuratzea biltzen ditu.

**DÍEZ GUTIÉRREZ, E.J. y ALONSO MARTÍNEZ, H.**, 2023. [Educar en los márgenes del sistema: educación comunitaria para la emancipación](#). *Educar*, vol. 59, no. 2, ISSN 0211-819X, 2014-8801

Ikerketa honek *Espacio Mestizo* proiektuaren kasua aztertzen du, Leongo hirian arrisku sozialeko egoeran dauden gazteekin egindako arte komunitario eta herrikoiaeren proiektua. *Espacio Mestizo* proiektuaren kasuaren azterketari buruzko ikuspegi kualitatibo idiografikoa planteatu da. Egindako teknikak esplorazio-elkarrizketak, sakoneko elkarrizketak, eztabaida-taldeak eta bizitza-kontakizunak izan ziren. Emaitzek erakusten dutenez, *Espacio Mestizok* arriskuan dauden nerabeei emantzipatzen laguntzen die, autoestimua eta ahalduntzea areagotzea nahiz parte hartzen duten nerabeen erantzunkidetasuna bultzatuz, baina bereziki nabarmentzen da garapen komunitarioaren bultzada herritartasun-eredu kritiko bat eraikitzeke, eta eredu horrek balio prosozialak dituzenez, gizarte-garapenari laguntzen dio. *Espacio Mestizon* parte hartzeak, hezkuntza sozial, herrikoia eta komunitarioaren ikuspegitik, ekarri zuen modu kontziente eta konprometituan inplikatzeko proiektu komun eta kolektibo batean, modu demokratikoan, eta horrek auzoen arteko nolabaiteko kohesioan ere eragin zuen.

**GIL RUIZ, F.J. y HERNÁNDEZ HERRERA, M.**, 2023. [Ron da error: el consumo digital de los jóvenes a la luz de las tesis de Byung-Chul Han](#). *Palabra Clave*, vol. 26, no. 3, ISSN 2027-534X, 0122-8285

Artikulu honek eduki digitalak kontsumitzen dituzten gazteen irudiari buruzko hausnarketa planteatzen du, *Ron da error* (Smith eta Vine, 2021) filmaren analisiaren bidez. Zinemaren eta gazteen arteko harremana erakutsi eta egungo testuinguru teknologikoa zirriboratu ondoren, Byung-Chul Han filosofoaren tesiak aintzat hartzen dira filmean sakontzeko eta horrek ingurune hiperkonektatu batean egiten duen gazteen kontsumoari buruzko erretratua ateratzeko. Ondorioek erakusten dutenez, kontsumo digitalak alienatu egiten ditu gazteak uko egin ezin dioten ingurune teknologikoan; ingurune horrek urruntzen ditu pertsona egiten dituen guztietatik, eta beren banakotasuna kentzen die robotek ematen dituzten algoritmoen boterearen esku utziz.